

Gasteizko Arte Ederren Museoak "Olarteren margolanak ikus daitezke Gasteizen"

Gasteizko Arte Ederren Museoak Angel Olarte (1897-1924) margolari gasteiztarraren lanak ipini ditu ikusgai. Estilo post-impresionistan margotuak, galdutzat ematen ziren artelanetako batzuk Mexikon aurkitu dituzte.

Ibilbide artistiko motzeko margolaria izan zen Angel Olarte. European zehar bidaiatuz ezagutu zuen post-impresionismo estiloa, eta biziki eragin zuen bere obretan.

Museoak leku berezia eskaini nahi izan dio oso ezaguna ez den margolari horri, eta, horretarako, museoak zituen lanak eta artistaren familiak utzitakoak bildu dituzte erakusketan. Horrez gain, Mexikon aurkitutako obrak digitalki ikusi ahal izango dira; guztira 12 koadro daude Mexikon.

Santiago Arcediano izan da erakusketaren komisarioa, eta Arabako Diputazioak antolatu du.

Erakusketa datorren urteko urtarrilaren 24a arte ikusi ahal izango da.